

IBARRA ▶

Otañoren lehen apustua

Mindegiarekin izango du bihar ▶ 6



Udan euskara ikasleak hartzeko familien bila

PROGRAMA ▶ 'Egonaldiak familia euskaldunetan' programa jarri dute abian bi euskaltegik

LAGUNTZAK ▶ Familiek eta ikasleek HABEren diru laguntzak jasoko dituzte ▶ 2

VILLABONA ▶

Antzezlanaren haurrentzat, bihar Gurea zineman

'Egizu lo, Tartalo' lana emango dute ▶ 4

Ustez «eragindako» sute batek Albiñoko eremu zabala erre du

LEITZA ▶ Zortzietan hasi eta itzali gabe zen; haizete handiak itzalketa asko zaildu zuen, helikoptero baten laguntza izan arren ▶ 7

JAIONE ASTIBIA



TOLOSA ▶

Hauteskunde kanpainako ekitaldi ugari izango dira gaur herrian

Ibarretxeren mitina, Batasunaren manifestazioa eta EBren banaketa ▶ 3

Lehen kartelak, atzo. J.SAIZAR

TOLOSALDEA ▶

2004 «orokorrean positiboa» izan dela dio Tolomendik

Aurtengo azpiegiturak eta proiektuak onartu ditu urteko batzar orokorrak ▶ 5

24 ETXEBIZITZA ORMAIZTEGIN

GABIRIALDE KALEA • ORMAIZTEGI

ORMAIZTEGIKO GUNEAN, KALITATERIK ONENENKO ERAIKUNTZAK

DUPLEXAK LORATEGIAREKIN

2 eta 3 LOGELETAKO ETXEBIZITZAK

GARAJEAK

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

INMOBILIARIA BITXOR, S.L

Tlf.: 943762758

Burdinate plaza 6, behea • BERGARA

SORONEA

DENDA EKOLOGIKOA

- Haragiak
- Berdurak
- Frutak
- Zerealak
- Ogia
- Esnea
- Baserriko oilaskoa
- Hazi Biodinamikoak
- Baratzako botika naturalak
- Landareak

- 2 URTE OSASUNA SALTZEN -

Letxuga kalea, 8 • TOLOSA • Tel.: 943 01 68 68

EUSKARA ▶

Euskara ikasiz edo hobetuz

'Egonaldiak familia euskaldunetan' programa jarri dute abian Donostiako Urrats eta Bilboko Ulibarri euskaltegiek; udako hilabeteetan ikasleak etxean hartuko dituzten familia euskaldunen bila dabilta

IRATXE ETXEBESTE

Badira urte batzuk Eusko Jaurritzaren HABE erakundeak *Egonaldiak familia euskaldunetan* izeneko ekimena abian jarri zuela. Egitasmo horren helburu nagusia euskara inguru euskaldun batean praktikatzera eta bertako bizimodua eta kultura gertutik ezagutu nahi duten pertsona helduei familia euskaldun batean hilabeteko edo bi hilabeteko egonaldiak eskaintzea izan da hasieratik.

Azken hiru urteotan ez du ekimen hori HABEK berak zuzenean kudeatu, finantziazioan eta jarraipenean parte hartu badu ere. Hala, helduen alfabetatze eta euskalduntzean diharduten euskaltegi homologatuen artean deialdia egin, eta Bilboko Ulibarri eta Donostiako Urrats euskaltegiei esleitu zaie 2005eko udako egonaldien antolaketa, hirugarren urtez jarraian. Bada bi euskaltegi horietako arduradunak familia euskaldun bila ari dira orain; alegia, euren etxea eskainiko duten familiengana iritsi nahian dabiltzala.

Bi euskaltegi horietako ordezkariak hitzetan, balio handia du ikasleei egitasmo hori eskaintzeak, «euskara ikasi edo hobetu nahian, zein bertako euskalkia ezagutzeko asmotan dabilen pertsonari familia euskaldun batean egoteko aukera ematen zaiolako, eta, aldi berean, herri euskaldunen bizimodua eta ohiturak ezagutzeko parada ere ematen zaiolako». Uztailean, abuztuan eta

irailean izango dira egonaldiak familia euskaldunetan.

Euskara ikasteko edo hobetzeko ahaleginean diren ikasleak etxean hartzen dituzten familiek bi aldetatik jasoko dute diru-kopuru bat hileko: guztira, 580 euro. Alde batetik, ikasleen aldetik jasoko dute dirua, bi ordainketa epetan: lehen ordainketa 2005eko ekainaren 13tik 17ra bitartean egin beharko du ikasleak —100 euro hilabeteko egonaldia bada, eta 200 euro bi hilabetekoa izanez gero—, eta bigarrena egonaldi bakoitzaren bigarren astean: 185 euro. Gainerako diru-kopurua antolatzaileek ordainduko diote familiari: lehen ordainketa egonaldi bakoitzaren bigarren astean egingo dute —125 euro— eta bigarrena, berriz, egonaldi bakoitza amaitu ondorengo astean —170 euro—.

Hala eta guztiz ere, kasu bereziak izendatu dituzte antolatzaileek. Esaterako, egonaldia hasi aurretik ikasleak baja ematen badu, 100 euro jasoko ditu familiak; ikasleak aurreratutako 100 euro horiek, hain zuzen ere. Eta lehen astea bukatu aurretik, ikasleak baja ematen badu 145 euro jasoko ditu familiak: ikasleak aurreratutako 100 euro gehi antolatzaileek ordainduko dituzten beste 45 euro. Kasu horretan, antolatzaileek ez dute ordezkari ikaslerik izendatuko.

Izena emateko epea hilaren 15ean amaitzen da. Informazio gehiago jaso daiteke 943 47 44 47 telefono zenbakian (Olga eta www.egonaldiak.net-en).



Biztanleriaren %70etik gora euskalduna duten udalerrietan edo auzuneetan bizitzea eskatzen diete, besteak beste, antolatzaileek parte hartzeko asmoa duten familia euskaldunei. Argazkian, Belauntza. HITZA

ARGIBIDEAK, BALDINTZAK, EPEAK... ▶

FAMILIA EUSKALDUNEI ZUZENDUTAKO OHARRAK

Bete beharreko baldintza nagusiak.

▶ Biztanleriaren %70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzuneetako batean bizi izatea.

▶ Egonaldia eskaintzen den hilabetean, etxean, gutxienez, hiru lagunek bizi beharko dute.

▶ Kide guztien arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izatea.

▶ Egonaldiak hilabetekoak izango dira gutxienez, eta egonaldi bakoitzeko ikasle bakarra hartu ahal izango da.

▶ Ikasleak familiako bizitzan parte hartuko du, eta familiak gutxienezko intimitatea eta askatasuna eskainiko dizkio.

▶ Ikaslearentzako logela bat libre izan beharko du: pribatua.

▶ Ikasleak, etxeko zein baserriko lanetan parte hartzera beharturik ez bada ere, berak hala nahi badu, parte har dezake ohiko eginkizunetan.

Izena emateko epea eta modua. 2005eko apirilaren 15ean bukatzen da ikasle euskaldunak familietan hartzeko izen-ematea, eta Ulibarri eta Urrats euskaltegiek prestatutako I eta II eranskinak bete behar dira, euskaltegi

horietara posta arruntaz bidaliz.

▶ Ulibarri euskaltegia. Gardoki, 3-1.A. 48.008, Bilbo (Bizkaia).

▶ Urrats euskaltegia. Katalina Erauso 21-behea. 20.010, Donostia (Gipuzkoa).

Nola jakin onartuak izan ote zaren. 2005eko apirilaren 29a baino lehen, antolatzaileek postaz jakinaraziko dizuete.

Familiek jaso beharreko diru-kopuruak. Hilabeteko egonaldi bakoitzeko 580 euro jasoko ditu familiak. Salbuespenak: ▶ Izendatutako ikasleak joaterik izan ez, eta antolatzaileek ordezkorik aurkitu ez, familiak 100 euro jasoko ditu guztira.

▶ Izendatutako ikasleak famili girora egokitze aldia bukatu baino lehenago egonaldia uzten badu, antolatzaileek ez dute ordezkorik izendatuko, eta familiak 145 euro jasoko ditu guztira. Famili girora egokitze aldia egonaldiaren lehen astea dagokio.

▶ Bi hilabeteko egonaldiagatik 1.160 euro jasoko ditu familiak.

▶ Bi hilabeteko egonaldiaren lehen hilabetean egonaldia uztea gertatuko balitz, familiak hilabeteko dirua jasoko du: ikasleak joaterik ez bada 100 euro eta egokitze aldiaren uzten badu, 145 euro.

Baldintzak ez betetzea. Diru-laguntza emateko ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako dirua eta legez dagozkien interesak itzuli beharko ditu familiak.

Aseguru-poliza. Egonaldian gerta litekeen edozein gorabeheraren ondorioei aurre egiteko, antolatzaileek aseguru-poliza hauek hartuko dituzte:

▶ Antolatzaileei egotzi dakiekeen erantzukizun zibila: 150.000 euro.

▶ Ikasleei gerta dakizkieken istripuak: heriotzaren kasuan 3.000 euro eta elbarritasuna 3.000 euro.

IKASLEA

Ikaslearen datuak. 2005eko ekainaren 6tik 10era bitartean, antolatzaileek ikasleari buruzko datuak postaz jakinaraziko dizkizute.

Egonaldia hasi aurretiko bisita. Egonaldia hasi aurretik ikasleari zuen etxea bisitatzeko aukera emango zai.

GALDEKETA

Egonaldiari buruz. Egonaldi bakoitza bukatu aurretik, antolatzaileek galdeketa bana bidaliko dizuete, zuen iritzi eta proposamenak jasotzeko.

aranburu jauregia

T O L O S A

Aitor Ruiz de Egin

Eskultura (Antrophozoofomak)

apirilaren 16a arte

Mikel Azpillaga

Pintura

apirilaren 23a arte

Ordutegia: jaiegunetan eta astelehenetan izan ezik, 17.30 - 20.30
Sta. Maria plaza, 4 • Tel.: 943 67 48 11 - Faxa: 943 67 32 98

PILOTA ▶

Garzandia Txapelketako finalerdiak

Gaur 11:00etan Peña Union elkarteak lau t' erdi barruan antolatutako Garzandia Eskupilota Txapelketako finalak jokatu dira Beotibar pilotalekuan. Lehendabizi Mikelperizena-Zubieta (Bera) Bengoetxea-Ontsaloren (Leitza) aurka eta ondoren Berasaluzte-Dominguez (Intxaurren) Cerezo-Huarteren (Bera) ariko dira. Finalak hurrengo larunbatean izango dira Beotibarren.

GAZTERIA ▶

Play Station erraldoia eta sukalde tailerra

Udal Gazteria Saileko Topaguneak gaurko Play Station erraldoia antolatu du. 16:30etik 20:30era izango da Kultur Etxean. Biharko berriz, sukaldaritza tailerra antolatu du, ordutegi berarekin. Euro bat kostatuko da bakoitza.

KZGUNEA ▶

Ikastaroetan tokia badago oraindik

KZguneak jakinarazi duenez, apirilko ikastaroetan tokia badago oraindik. Etzitik 15 bitarte 18:00etatik 20:00etara, 18tik 29ra 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara Internet KZgunea izango da. Mintegi hauek ere badaude: Eustat apirilaren 25ean 18:00etatik 20:00etara, Kutxa I eta II 26an 18:00etatik 20:00etara eta 27an 18:00etatik 20:00etara eta Outlook 28an 18:00etatik 20:00etara.

DANTZA ▶

Udaberriren 50. urtemuga prestatzeko bilera

Etzi, astelehena, 20:30ean, bere lokalean —Igaralde kalean, igerilekuaren ondoran— Udaberri dantzari taldeak bilera batera deitu ditu garai desberdinetan taldean aritu diren dantzari, musikari eta partaide guztiak. 2007an taldeak 50. urteurrena izango duenez, ordurako ospakizun ekitaldiak prestatzen hastea da bilera honen helburua.

EAE-KO HAUTESKUNDEAK ▶

Hasi da kanpaina; gaur ekitaldi ugari izango da eskualdean

Ibarretxe, Egibar eta Ziarreta EA-EAJren mitinean Leidorren, Batasunaren manifestazioa eta EBren progaganda banaketa

JOXEMI SAIZAR

Atzo hasi zen apirilaren 17an egingo diren EAEko hauteskondeen kanpaina eta eskualdean nabaritu da, hainbat kartel jarri dituztelako horretarako prestatu dituzten paneletan. Korreoz botoa eman nahi dutenek postetxean eska ditzakete paperak hilaren 7a baino lehen. Alderdi politikoek ere informazioa ematen dute. Gaur kanpainaren barruko ekitaldi batzuk izango dira Tolosan.

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria lehen aldiz Tolosaldean izango da. 18:00etan harrera egingo diote udaletxean eta 18:30ean mitina emango du Leidor zineman EAJko Joseba Egibar eta EAko Unai Ziarreta zerrendaburuekin.

Batasunak atzo Anoetan hasi zuen akanpada bukatu eta 12:00etan giza-katea egingo du Belateraino, ondoren es-



Kanpainako lehen kartelak ageri dira eskualdean. J.SAIZAR

kualdeko manifestazioa egin ez dute Trianguloan 20:00etan. Ezker Batuako (EA-IU) Gipuzkoako zerrendaburuek hauteskundeetako propaganda banatuko dute gaur 11:00etatik aurrera Zerkau-

sian.

EUSKARA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiriaren afarien zozketa egin da bezeroen artean

Jose Ramon Esnaolak irabazi ditu lau afari Orue erretegiari

ERREDAKZIOA

Tolosaldean Bai Euskarari Ziurtagiria daukaten 66 saltoki, enpresa eta era guztietako entitateek beren kide eta bezeroei leialtasuna eskertzeko zozketa egin da 2004ko abendua eta 2005eko urtarrila bitartean. Zozketako zenbakiak, boletoak ziurtagiridunek bezeroei oparitu dizkiete beren kide eta bezeroei.

Tolosako Orue erretegiak eta Amets jatetxeak zozketa honetan parte hartu dute launa afari eskainiz. Kanpaina abenduaren 24an hasi zen eta urtarrilaren 28an amaitu da. Jose Ramon Esnaola izan da irabazleetako bat.

Kanpainaren helburua Bai



Jose Ramon Esnaola, Angel Oruesagasti eta Rober Fernandez. HITZA

Euskarari Ziurtagiria duten saltoki, enpresa eta era guztietako entitateak ezagutzera ematea, hau da, euskararekin konprometitzen diren horiek aintzat hartzea.

Kontseiluak, Galtzaundi Euskarari Elkarteak eta Tolosaldeko udalek sustatu dute kanpaina hau, eta Caja Laboral-Euskadiko Kutxak, Amets jatetxeak, Orue erretegiak eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK banatu dute.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 00 68 00
 - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 - ▶ Amaroako dispen.: 67 26 37
 - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 - ▶ DYA: 67 25 36
 - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Taxis: 67 04 20
- ▶ Taxis (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldiakaria: 30 07 32
- ▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888
- ▶ Karrape irratia: 948 61 09 14
- ▶ Txolarre irratia: 943 69 80 38

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Iturrioz I. Euskal Herria 3 (barra). 943 67 09 15
- Gimeno. Elbarren 52(Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18. tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoetaldea.** 687 41 00 22 anoetaldea@tolosaldeko hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34. alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitza.** 687 41 01 18. leitza@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAK

- Ibarra-Tolosa.** Familia batek etxebizitza alokatuko luke. Deitu 685 76 11 22 telefonora.
- Tolosa.** Estrella eraikinaren inguruan alfombra jaso duenak utz dezala Ilargi tabernan edota 943 11 84 27 telefonora deitu.

ANOETA ▶

Festa
Alternatiboen
Batzordearen
kritika Udalari

Udalaren jarrera eta baimenak lortzeko dituzten «oztopoak» salatzen dituzte

I. GARCIA

PNV-EA aski da izenburupean igorri duten ohar batean, Festa Alternatiboen Batzordeak Udalaren jarrera kritikatu dute. Idatzian azaltzen denez, «Anoetako eragile eta herritarrok, Festa Alternatiboak antolatzeko garaian EAJ/EAK kudeatzen duen Udala erakusten ari zaigun jarrera, eta festetarako eskatutako baimenak lortzeko ditugun oztopoak gogor salatu nahi ditugu».

Festa Alternatiboen Batzordekoek «gogor» salatzen dute egoera, «ez delako lehenaldia herritarrok horrelako oztopoak jasaten ditugula». Idatzian azaltzen dutenez, hemendik aurrera herriko egoera «normalizatzen has dedin», puntu batzuk bete ditzan «exigitzen diogu Anoetako Udalari», bi urte dira «herritaronganak bazterketa» dela eta.

Lehenengo puntuan adierazten denez, «herritarrek eta herriko eragile nahiz elkartek antolatzen dituzten ekitaldi eta bestelakoak errespetatzea» exijitzen dute, «eskutatutako baimenei garai ez erantzunez eta herriari jartzen diren kartel eta pankartak errespetatu, eta behar izanez gero laguntza emanez».

Beste puntuan idatziak zehazten duenez, «anoetarrongandik gehiago arduratzea» eskatzen dute, «erabaki partidistak alde batera utzi eta herritarren hitza eta erabaki errespetatu».

VILLABONA ▶ KULTURA



Antzezlaren bi protagonistak: Tartalo eta Oihana. HITZA

Haurrentzako
antzezlana,
bihar Gurean

‘Egizu lo, Tartalo!’ ikuskizuna eskainiko du Dar-Dar Produkzioak taldeak

IMANOL GARCIA

Dar-Dar Produkzioak taldearen eskutik *Egizu lo, Tartalo!* antzezlana ikusi ahal da bihar arratsaldeko 17:00etan, Gurea aretoan. Haurrei zuzendutako istorio honetan Oihana izeneko neskatxa bat eta Tartalo pertsonaia mitologikoaren arteko harremana kontatzen da.

Oihana Tartaloren kobazuloan preso dago. Tartalok jan ez dezan, mota guztietako trikimailuak erabiltzen saiatuko da neskatxa, eta azkenean, egokiena aurkituko du: ipuinak. Kontu kontari, Tartalo lo dagoen bitartean Oihana kobazulotik ihes egiten saiatuko da.

Antzezlaren bitartez, Tar-

talo pertsonaia mitologikoa hurbildu nahi zaie haurrei. Lau urtetik hamaika urte bitarteko haurrei dago zuzendua bereziki.

Dar-Dar Produkzioak taldeak aurretik egindako *Alizia Bixikerien Lurraldean* eta *Pino-txo* ikuskizunetan bezala, *Egizu lo, Tartalo!* antzezlanean aktoreak, buruhandi bat eta txinatar itzalak konbinatzen ditu. Bestalde, ikuslegoaren partaidetza bilatzen dute abesti eta jokoan bidez.

Maite Franko antzeleak egiten du Oihanaren papera eta Asier Zinkunegik Tartaloren. Itzalak aurreko bi antzeleak eta Iker Zinkunegi egiten dituzte. Zuzendari lanak Elena Apariciok egiten ditu.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA

Arregiren torturatzailerik
bat poliziburu egin dute

Antonio Gil Rubiales Espainiako Poliziaren Tenerifeko buru izendatu berri dute

I. GARCIA

Espainiako Auzitegi Gorenak 1989. urtean Antonio Gil Rubiales zigortu zuen Joxe Arregi zizurkildarra hil arte torturazteagatik. Espainiako Gobernuak pertsona bera Poliziaren Tenerifeko buru izendatu berri du.

Canarias-semanal.com aldizkari digitalean argitaratu du informazioa eta egoera salatu du Armando Quiñones kazetariak. Jose Segurak, Espainiako Gobernuak Kanariar Uharteetan duen ordezkariak, martxoaren hasieran izendatu zuen Gil Rubiales Tenerifeko Espainiako Poliziak duen herrialdeko polizia etxearen buru.

Aurretik beste kargu batzutan aritu da Gil Rubiales Kanariar Uharteetan. 1996an, Kanaria Handian Espainiako Poliziaren Operazioetako Unitatearen zuzendari izendatu zuten. 2003an, berriz, Tenerifeko Arona herriko poliziaburu izendatu zuten. Hain zuzen, kargu horietan azaldutako jarrera adierazten du aldizkari digitalak. Besteak beste, Ka-

naria Handian bere menpekoekin eta Udaltzaingoarekin oso harreman txarra zuela azaltzen du *Canarias-semanal.com* kazetak.

Hiru hilabeteko zigorra

Joxe Arregi 1981eko otsailaren 13an atxilotu zuen Espainiako Poliziak. Espetxeratu zuten eguneha hil zen zizurkildarra. Aurretik bederatzita egun eman zituen inkomunikatuta eta denbora horretan jasandako torturengandik hil zen. 70 polizia baino gehiagok tortura saiotean parte hartu zutela frogatu bazen ere, ezin izan ziren guztiak identifikatu. Azkenean zazpi auzipetu ziren eta horietatik bi epaitu, tartean Antonio Gil Rubiales egungo Tenerifeko Poliziaren arduraduna.

Lehenbiziko epaiketean, 1983an egindakoa, Madrilgo Epaitegiak bi poliziak absolbitu zituen. Bi helegite aurkeztu ondoren, Auzitegi Gorenak hiru hilabeteko espetxe zigorra eta bi urtetarako lana eta soldata kentzea ezarri zion Gil Rubialesi.

ORENDAIN ▶

Herriaren
historiari buruzko
hitzaldia

Agerre baserriko Pakitak eta Ernestok hitzaldia emango dute bihar udaletxeko areto nagusian. Herriko historiari buruz izango da solasaldia, Orendaingo iraganari begira: eliza, udaletxea eta Orendain abizenaren historia izenburupean. Hitzaldia meza ondoren eskainiko da. Orendaingo Udalak herritarrek parte hartzea gonbidatzen ditu.

AHT ▶

AHTren aurkako manifestazioa

AHT Gelditu! Elkarlanak deituta manifestazioa egingo da Ordiziako plazatik abiatuta. Gaur arratsaldeko 18:00etan hasiko da *Ibarretxe: Inposaketarik ez! AHT gelditu! Herriari entzun!* lemapean. Hainbat alderdi politikok, sindikatuk eta talde ekologistak eman dute bere atxikimendua. Eskualdean, Adunako Udalak, Adunako Muxkil elkarteak eta Aitor eta Igor Esnaola trontzalariek eman diote bere atxikimendua manifestazioari.

VILLABONA ▶

Behar-Zanako
pilotarien
partidak gaur

Villabonako Errebote plazan, gaur 17:00etan, Behar-Zana 1 taldekoek Baigorriko Zaharer-Segi 3 taldearen aurka ariko dira Euskal Herriko Txapelketan, Joko Garbi plaza librean eta nagusien mailan. Bestalde, Donostiako Gaska kiroldegian, gaur 17:30ean, Gipuzkoako Txapelketan, eskuz binakako partida trinketean, Behar-Zana Hernani 2ren aurka.

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskaierak neurriira

ZUHATZI
Zurgindegia

JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1
Txarama auzoa • 20491 Leaburu

ARAMBURU

Salgai (Tolosa), Pisua igogailuarekin Larramendi kalean, 112 m², Berritua.

Salgai (Tolosa), Pisua handia Gorosabel 40ean, Garajea aukeran

Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².

Salgai (Tolosa), Garaje itxia Plaza Zaharran.

Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean.

Alokatzeko (Tolosa), Garajea Pedro de Tolosa kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

EKONOMIA ▶

2004. urtea «orokorrean positiboa» izan dela dio Tolomendik landa eremuan

Urteko Batzar Orokorrean 2005eko aurrekontuak eta lan egitasmoa onartu ziren, azpiegituretarako eta bestelako proiektuetarako bideratuko direnak



28 herrien landa eremuen babesa bultzatzen du Tolomendik. HITZA

NOELIA LATABURU

Tolomendik, Tolosaldeko Landa Garapenerako Elkarateak, urteko batzar orokorra egin berri du, non 2004. urteko bere ekimenen balorazioa egin eta 2005. urteko aurrekontuak onartu dituen.

Hainbat ekintza eta programen kudeaketa, dinamizatzaile lanak eta koordinaketak burutu ditu Tolomendik 2004. urtean, esaterako, Berpiztu programa, Berastegi eta Elduain dinamizatzeke. Honi esker gauzatu dira, besteak beste, Berastegi-ko eskolan multimedia ezar-

tzea, kultur aretoa eraikitzeke proposamena, haur eskola martxan jarri, teknologia berrien gaineko hitzaldiak eta mediku zentroa. Esparru berri bat ere landu du Tolomendik azken urtean, gizarte zerbitzuena, alegia, Tolomendiko arduradunen esanetan, «nahitahiezkoa baita landa eremua gizartearen beharretara egokitzzea». Honen barruan dirulaguntzak lortu dituzte dituzte Saiatz mankomunitateko ibilgailu egokiturako, Bidegoiango eta Albizturko ezindu eta helduak eguneko zentrura eramateko. Leader + programa ere

garatu dute, teknologia berrien garapena landa eremuan bideratzeko helburuz. Programa honen harira, zortzi proiektu lagundu ziren. Hauetatuz gain, Agroaldi proiektua, baserriko produktuen komertzializazioa, 16 proiektu Erein programaren bidez, eki indarraren bidez belarra lehertzeke ekimen berritzailea edo ingurugiroaren zainketa bezalako ekintzak ahalbidetu ditu elkarateak. Lan honen guztiaren balorazioa «orokorrean positiboa» egin dute Tolomendik-ek, zenbait programa «sendotu» egin baitira, beste batzuk «martxan» jarri diren bitartean. Dena den, ardura ere azaldu dute, izan ere «lehen sektoreari dagokionez atzeraka goaz eta politika garbi baten faltan da».

Tolomendik onartu ditu, halaber, 2005 urteko aurrekontuak. Guztira 7 baserri bide eta 5 ur-azpiegitura lagunduko dira eta baserrien seinalizaziorako eta Euskaber arrautzak sailkatzeke zentrurako ere bideratuko da dirua. Landa Agenda 21 proiektua ere garrantzia handia izango du.



Herrarteren ipuin kontaketak

ABALTZISKETA-ORENDAIN ▶ Nerea Herrartek arratsalde bizia izan zuen atzo. Lehenik eta behin Abaltzisketako Kultur Etxean bildu zituen herriko umeak —argazkian— bere ipuinak adi-adi entzuteko. Hau amaitutakoan, Orendainera abiatu zen Herrarte, honetan hango gaztetxoak bildu zituelarik. NOELIA LATABURU



Kupelak ireki dira, hiru egunetarako

ALEGIA ▶ II. Zerbeza Festaren lehen garagardoak dastatu dira Alegian dagoeneko. 19:00etan ireki zituzten kupelak frontoian, non hamar garagardo mota topa daitezkeen. Janaririk ere ez zen falta eta ukondoa eta saltxitxa usaina nabaria zen mahai inguruan. Askoren ajea errepikatzeke aukera izango da gaur ere. N. L.

 **bidali zure argazkiak!**
argazki
hitza lehiaketa

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldekohitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leizaldekohitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAren egoitzara

Oinarriak www.tolosaldekohitza.info
webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta



Marratxo iratxoaren munduan

IBARRA ▶ Arrakasta handia izan zuen atzo Ibarako Kultur Etxean haur eta gurasoek ikusteko aukera izan zuten Peter Roberts-en *Marratxo, koloreen iratxo* antzezlanak. Horrela, gaztetxoek Marratxo iratxo bihurri, jostalari eta argiaren mundu majikoa ezagutuz ederki asko igaro zuten goiza. I.TERRADILLOS

Herriko gazte eta txikiak pilotan

BELAUNTZA ▶ Herriko haur eta gaztetxoak 6 hilabetez aritu dira esku pilota ikastaroan, eta pixkanaka taldea handituz joan da inguruko herrietakoek ere parte hartu baitute. Ikastaroa urte osora luzatzea erabaki dute. Larunbatetan izaten jarraituko du 10:30etatik 12:30 etara Belauntzako frontoian. HITZA

BERROBI ▶ PILOTA

Gipuzkoako lau t'erdiko Irekian ari da Altuna

I.TERRADILLOS

Atzo eman zitzaion hasiera Lehenengo lau t'erdiko Gipuzkoako Txapelketa Irekiari. Pilotako zirkuitu profesionalean sartzen den txapelketako estreinakoa Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zen, Errandonea eta Nagoreren artekoa hain zuzen. Ondorengo

egunetan jokatu diren partiden artean, Alustiza eta Altuna Ariznabarreta eta Armen darizen aurkakoa izango da. Altuna berrobiarrak goruntz egin du azken txapelketetan Errioxako irekian ikusi ahal izan zen bezala. Hasi berri den honetan bera eta beste hamalau pilotarik 3.000 euroko saria irabazi ahaliko dute.

IBARRA ▶ AIZKOLARITZA

Otaño eta Mindegia, aurrez aurre

Bi aizkolariek 1.500 euro jokatu dituzte Donezteben bihar 12:00etan

IÑIGO TERRADILLOS

Bihar egun garrantzitsua izango da Unai Otaño ibartarrarentzat, izan ere Mindegiarekin adostu zuen apostuari ekiteko eguna izango da.

Urtarrilean bota zion desafioa Otaño 21 urte dituen Xabi Mindegia Labaiengo aizkolaritari. Euskal Herriko Aizkolaritza Txapelketa jokatu berritan zegoen orduan ibartarra eta bigarren postua lortuta. Bere eta Mindegiaren arteko apustu txiki bat egitea polita izan zitekeela esan zioten eta ideia gustatu zitzaion Ibarakoari.

«Neure burua nahiko ondo ikusten dut, entrenamenduetan oso gustura aritu naiz eta ondo prestatuta nagoela iruditzen zait», azaldu du Unai Otaño. «Ez gara inoiz elkarren aurka lehiatu, beraz bata bestearen joko gutxi ezagutzen du», dio Otaño bere aurkariaren inguruan. Hori bai, Euskal Herriko bigarren mailako aizkolaritza txapelketan egingo dute topo berriro laster.

Apostuetan egin ohi den bezala, egurra bien artean eramango dute, eta zortzi kana-er-



Unai Otaño. IÑANOL GARCIA

diko eta bi oinbiko izango da bakoitzak ebaki beharko duena.

Lekuari dagokionez, berriz, Donezteben burutuko da norgehiagoka. Mindegiak aukeratu zuen eta ibartarra ere ados zegoen bertan egitearekin. Bestalde, 1.500 euro jokatu dituzte alderdi bakoitzak bihar 12:00etan hasiko den aizkora apostuan.

IBARRA ▶

Sheffield Wednesday-k fitxatu du Zigor Aranalde

Wallsal-en bezala League One-ean jokatzeko jarraituko du, baina goiko postuetan

I.TERRADILLOS

Zigor Aranalde ibartarrak Ingalaterrako futboleko jarraitzaile du bere jokoak erakusten. Azken egunetan jokalaria albiste izan da Sheffield Wednesday taldeak fitxatu baitu.

Hemen ez bezala, Ingalaterran edozein unetan egin ditzakete nahi adina aldaketa eta fitxaketa, beraz, oso ohikoa izan da Zigor Aranalderen kasua. Liga amaitzeko zortzi partida geratzen zirenean gertatu zen talde aldaketa Aranalderentzat. League One-ean ari da uneotan Sheffield, hemen bigarren B maila litzatekeena. Talde honentzat unerik onena ez bada ere aipatu behar da Premier ligan aritu izan dela.

32 urte dituen Aranaldek bost urte daramatza Ingalaterran jokatzeko. Sheffield Wednesday taldeak fitxatu aurretik Walsall taldean aritu da. Apalagoa zen lehenagoko taldea eta maila berean lehiatzen ari badira ere Sheffield Wednesday goiko postuetan dago Walsall jaitsiera postuetan dagoen bitartean.



Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta kalea, 9 • 20006 DONOSTIA
Tel.: 943 11 28 93
www.gipuzkoa.net/kultura

ERAKUSKETAK


Erakustaretoan GURE MUNDUA

Oliver Boberg eta Philippe Ramette-ren argazkiak, fikzioa eta errealtatearen arteko lerro finari buruzkoak Apirilaren 30a bitartean



Ganbaran DENBORAREN ARRASTOAN

Esther Ferreren argazkiak, denborak eta espazioak pertsonarengan duten eraginari buruzkoak. Apirilaren 16a bitartean.



ORDUTEGIA
asteartetik larunbatera:
10:30-14:00 / 16:00-20:30
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita
taldeentzat bisita gidatuak astelehenetik ostiralera

LEITZA ▶ INGURUMENA

Suak kizkali du Albiñoko eremu zabala bat

Haizete handiak asko zaildu zuen itzalketa

J. ASTIBIA

Atzo Albiñoko eremu zabala erre zuen, iturri desberdinen arabera «eragindakoa» izan sute batek.

Goizean, 8:00ak alderako herriko borondatezko suhiltzaileek oharra jaso zutenetik, arratsaldean zortzi egun, aritu ziren itzaltze lanetan. Atzokoan izan ere, egun guztian zehar ibili zen haize indartsua ere aurka izan baitzuten. Leitzako suhiltzaileez gain, aipatzekoa

da beren lanak utzita mendira ateratzen direla borondatezko «dan hori» egitera, Nafarroako Suhiltzaileen Basekoak ere etorri behar izan zuten, eta eskuz ez ezezik, helikopteroaren laguntza ere izan zuten.

Erretako eremuaren azalera zehatza esan gabe, bistan da palda handiak erre zirela atzokoan: zuhaitzak han-hemen eta larre eta otadia gehiena. Baina leku oso malkartsua izaki, arrisku dezentea sortu zuen suteak, batez ere, behekalde



Goizeko zortzietan hasita, arratsaldean sua itzaltzeko zegoen. J. A.

igarotzen den Goizuetalderako errepidera harriak, sutan, erortzen zirelako eta zenbaitek gainetik pasa ere bai, istripuak

ez ezik, sua ere zabaltzeko arriskua areagotuz. Halaxe adierazi zioten HITZARI bertan lanean aritutakoek.

LEITZA ▶ KIROLA

Leitzako XXVII. Herri Krosa prest dute Aurrera K.E.-koek

Hurrengo apirilaren 10ean izanen den laisterketan parte hartzeko deia egin dute

JAIONE ASTIBIA

Dagoeneko prest-prest dute, herriko kirol eguna ez ezik, festa egun ere bihurtu den krosa. Aurrera Kirol Elkartean: igande honetan zortzi, apirilaren 10ean, beraz, da egitekoa aurretan hogeita zazpigarren edizioa izanen duen Leitzako Herri Krosa.

Urtero egin ohi dutenez, laisterkariak hiru sailetan aterako dira: benjaminak (1996-2005 urte bitartean jaiotakoak) aterako dira aurreneko, 10:15ean, Kale Nagusiko irteera-lekutik, eta 800 metro inguruko ibilbidea eginen dute herrian barrena, amaiera herriko plazan izanik. 10:30ean alebin (1994-1995) eta infantilen (1992-1993) txanda izanen da; eta 11:15ean aterako da multzo nagusia, gainerako maila guztiak bertan izanik, bakoitzak dagoen lutzerako ibilbidea egitera.

Ibilbidea ongi adierazita egonen dela ziurtatu dute antolatzaileek, eta gainera hantxerak zaindariak ere hantxe izanen omen dira, eta baita indarrak berreskuratzeko ura eta bestelakoz hornitutako mahaiak ere.

Herri Krossean parte hartzeko izena emateko, egunean bertan egin omen daiteke, 9.00etatik eta frogak hasi baino ordu laurden lehenago arte; nahi izanez gero, ordea, www.herrikrossa.com helbidean ere egin omen daiteke. Kasu honetan, iaz martxan jarri zuten asmoari eutsiz, izena ematerakoan, eta leitzarrentzat bideratuta soilik, taldeka ere egin dezakete, halako apustu-erronka eginez: 5 mutil leitzarrek taldean, 47 minutuz azpitik sartzeko erronka eginez; 3 neska leitzarrek taldean, 27 minutuz behetik sartzeko erronka eginez. Betetzen duten

HERRI KROSSA ▶

MAILAK

Benjaminak. (96-05), 800m.
Alebinak. (94-95). 2.500m.
Infantilak. (92-93). Mutilak: 4.000 m. Neskak: 2.000 m.
Kadeteak. (89-91). Mutilak: 5.000 m. Neskak: 2.500 m.
Juniorkak. (86-88). Mutilak: 7.500 m. Neskak: 5.000 m.
Seniorkak. (85az aurrekoak). 10.000 m.
Damak. (85az aurrekoak). 5.000 m.
Beterano gizonezkoak. (40 urtez goikoak). 7.500 m.
Beterano emakumezkoak.

(35 urtez goikoak). 5.000 m.

SARIAK

Seniorkak.

1. lekua. 200 euro.
2. lekua. 140 euro.
3. lekua. 80 euro.
4. lekua. 50 euro.
5. lekua. 35 euro.

Damak.

1. lekua. 100 euro.
2. lekua. 70 euro.
3. lekua. 40 euro.
4. lekua. 25 euro.
5. lekua. 18 euro.

talde bakoitzak axuri bana jasoko dute sari modura. Gainerakoan maila guztietan ohiko garaikurrak jasoko dituzte, 13:00etan eginen den sari-banaketan.

Bitartean, hamaiketakoak egiteko aukera izanen dute parte hartzaile guztiek hantxe. Eta 14:30ean bertso-bazkaria ere bada, txartelak asteazkeneko hartzen dituenarentzat.

LEITZA ▶

215 kiloko jasotzeko ahalegina du Perurenak

Aramaioiko jaialdian ere, Jon Rekondok Urrezko Aizkolarien finalerdia du jokoan

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, hitzordu garrantzitsua dute 17:00etatik aurrera Aramaion, bi leitzar kirolarik, bakoitzak bere alorrean: Inaxio Perurenak, 215 kiloko harria esku bakararekin jasotzeko ahalegina eginen du; Jon Rekondok, Urrezko Aizkolarien Txapelketan, 25 urtez behiko mailan, finalerdia jokatuko du.

Horrela, Perurenari dagoeneko, 215 kiloko harri zindrikoa bizkarreratzeko asmoa du, esku bakararekin oraindano berak duen 210-euroko marka gaindituz (iazko ekaian egindakoa): beste bost gehiago, beraz. Orain aurrekoan jaso zuen Aimar Irigoienek 213-koa ere. Dena den, Inaxio Perurena bilakatu da bere 21 urterekin, halako zama jaso duen aurreneko harrijasotzaile, gauzak ongi direla.

Finalerdietan

Eta lan egin beharra suertatzen zaio, modu berean, Jon Rekondo aizkolari gazteari ere. Urrezko Aizkolarien Txapelketan, Urrestilako Arkaitz Iriarte izanen du arerio eta seina enbor ebaki beharko dituzte: lau kana-erdiko eta bi 60 ontzako. Saioko irabazlea, 25 urtez behiko Urrezko Aizkolarien finalera igaroko da zuzenean.

Nabarmentzekoa da Rekondok, 20 urtez behiko txapelketan parte hartu zuela eta han Mugertza III. ari irabazi ondoren, mailaz igo zela, frogaren onargarako sailkapena lortuz, bide batez. Sariaketa honetan jada, aurreko asteburuan jokatu zen kanporaketan Aldape garaitu zuen.

iragarki laburrak ▶

Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta.
Informatu: 943 43 41 27.

Haur Hezkuntza. Gaztelerako 106 leku, euskarako 52. Doako

informazioa. 943 43 41 27.

Fisioterapeutak. Laboratorioa, argi-izpi teknikoak, erizain laguntzaileak. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak,

sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritzak. Informatu: 943 43 41 27.

Peoiak. Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,

Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.

Gidariak. Hurrena sartzeko: udalsteak, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundia. Doako informazioa. Informatu: 943 43 41 27.

Irakasleak. 465 leku libre. Hurrengo

deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

Udaltzainak. 25 leku libre udalbehetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Iruin, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. II. Zerbeza Festa 19:00etatik 01:00etara frontoian. Hamar garagardo mota eta afariak. Dj festa Ixkina tabernan 24:00etan.
Alkiza. Eriz magoaren saioa 17:00etan Kultur Etxean.
Tolosa. Play Station erraldoia Gazte Topagunean 16:30etik 20:30era
Tolosa. Kornerra saioa Goiko irratiari (107 FM). Bide Ertzean-en kontzerturako sarrerak zozketatuko dira. Kontaktoa: kornerra@hotmail.com

HAUTESKUNDEAK

Tolosa. EA-EAJren mitina Leidorren 18:30ean. Hilzariak: Juan Jose Ibarretxe, Joseba Egibar eta Unai Ziarreta.
Tolosaldea. Batasunaren akanpada Anoetan bukatu eta 12:00etan giza-katea Belateraino eta handik eskualdeko manifestazioa.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Mikel Azpilikueta koadroak eta Aitor Ruiz de Eginoren eskulturak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Paco Tenaren koadroak Lanbroa tabernan.
Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren zeramikak Saikin tabernan.

ZINEMA

Tolosa. *Los chicos del coro.* 22:30ean Leidor zineman.

Harley festa Cheyennen

ANOETA ▶ Harley-Davidson markako motorrak probatzeko aukera ematen dute asteburu honetan; Euskal Herriko eta kanpoko jende ugari espero dute

ERREDAKZIOA

Harley-Davidson markako motorrak probatzeko aukera eman zuten atzo Anoetako Cheyenne Radical Bikes dendan. Gaur egun osoan eta bihar eguerdia bitarte ere izango da bi gurgildun ibilgailuak *sentitzeko* aukera.

«Urtero behin edo bitan egiten dugu. Lehen banatzaileak ekartzen zizkiguten motorrak, baina orain bost ditugu urtean zehar horrelako probaketak egiteko», adierazi du dendako Karmele Etxeberriak. Euskal Herriko Harley-Davidson kontzesionario bakarra da Anoetako industrialdekoa. Euskal Herrikoaz gain, beste leku askotako jendea hurbiltzen da horrelakoetan, «150 pertsona edo izaten dira», dio Etxeberriak.

Eneko Marin donostiarrak atzo probatu zuen markako motor berria: Street Rod izeneko. Otsailean atera zuten eta berrikuntza batzuk ditu: 120 zaldiko potentzia —besteek 70 arte dute—, eserleku altuagoa, manilar estuagoa... «Lizartza aldera joan naiz eta oso gustura ibili naiz, nahiz eta haizea pixka bat egin. Indarra dauka eta 120-140 km/h-ra jartzera iritsi naiz N-1ean», esan du. Atzean eserita joanda «beldur handiagoa» pasatzen dela dio, horre-



Haizea egon arren, egun ederra izan zen atzoko motorrak probatzeko Cheyennen. IMANOL GARCIA

gatik nahiago du berak gidatzea: «Zuk erabakitzen duzu nora joan, abiadura aldatzek, gehiago ikusten da...».

Aspalditik gustatzen zaizkio harleyak, baina ez dauka, garestiak direlako. Honek 24.000 euro inguru balio omen du. Hala ere asko irauten omen dute, «jendeak oso ondo zaintzen dituelako». «Betiko motorra mantsoagoa da eta horrekin puskatzeko atera dute modelo berri hau, indartsuagoa», dio Marinek.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Unai Sarasola (Irura).

Gaur 11 urte.

Familia guztiaren partetik.



URTE ASKOAN

Iñigo Atxukarro (Berastegi).

Kaxo kaxa. Ondo-ondo pasau zure urtebeletze

eguna. Zure arreba bikaren partez muos.

HITZA,
zorian agurren
tarrea

HITZAren egoitzatara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletzeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

Gipuzkoako DIVX merkeena!

48€

51€

JPEG, MP3

Audio digital interak

DIVX, XVID, eguneragarriak

DALTON DVX 600 DVD

DVD, MP3, MPEG4, CD, CD-R/RW, HDCD, JPEG, Irakurgailua, DIVX sistemarekin bateragarria, primerako irudi zein soinu kalitatea interak digitalerik esker

Garbera Merkatal Gunea Garberako Zeharbidea, 1
20015 Donostia (Gipuzkoa)

Media Markt

INOZOA